

Guggenheim berria 2013an zabaldu nahi dute, oraindik proiekturik ez duten arren

Urdaibain egin nahi duten Guggenheim museorako lehen pausoa eman dute Bizkaiko Foru Aldundiak eta Bilboko Guggenheim museoak. Bilboko Guggenheim museoa handitu aurreko lanak egiteko agiria sinatu zuten Jose Luis Bilbao Bizkaiko diputatu nagusiak eta Juan Ignacio Bidarte Guggenheim museoko zuzendariak atzo. Hitzarmen horren bidez, milioi bat euro jarriko ditu Aldundiak, museoa sortu aurreko lanak egiten hasteko.

Erakunde bietako ordezkari nagusiek esan dutenez, lauzpabost urte barru ireki nahi dute museoa, 2013an edo 2014an. Gaur-gaurkoz, alabaina, ez dago inolako proiektu museografikorik. Alegia, museoak zer-nolakoa izan behar duen ez zuten zehaztu oraindik. Bideragarritasun azterketarik ere ez dute egin. Ez ekonomikorik, ezta ingurumenari dagokionik ere. Baina argi daukate gauza bat: Hurrengo hamarkadako kulturaren paradigma izango da museoa.

Bizkaiko Foru Aldundia eta Bilboko Guggenheim museoa dira oraingoz proiektuaren sustatzaile bakarrak. Joan den ostegunean bildu zen Bilbao Patxi Lopez Eusko Jaurlaritzako lehendakariarekin, eta museoa diruz babesteko eskatu zion. Bilboko Guggenheimeko eredu berberari segitzeko proposatu zion. Alegia, diruaren erdia Jaurlaritzak jartzeko. Hartara, eraikinaren jabea izango litzake Jaurlaritza, Aldundiarekin batera. Eta, horretaz gain, museo berriko patronatuko kide ere izango litzateke EAEko gobernua.

Lopezek, ordea, ez zion baieztatu erantzunik eman. Ezezkorik ere ez, nolanahi ere. Erantzun bat izandakoan, Kultura sailburua [Blanca Urgell] Kultura diputatuarekin [Josune Ariztondo] harremanetan jarriko zela esan zidan, baina oraingoz ez dugu deirik jaso, adierazi du Bilbaok. Kazetarien artean jesarrita zegoen Ariztondo, eta Bilbaoren hitzak baieztatu zituen, buruarekin keinu eginez.

Urdaibain Guggenheim museo bat irekitzeko asmoen berri Bilbaok berak eman zuen duela urtebete. Iragarpenak sektore askoren kritikak eragin zituen. Eta orduko Eusko Jaurlaritzak ez zuen argitu egitasmoan parte hartzeko asmorik zuen. Gaur egun Eusko Jaurlaritzan dagoen alderdiak ere, PSE-EEk, gogor kritikatu zuen egitasmoa adostasunik gabe landu izana, eta ehun milioi euroko inbertsioaren atzean, horrenbestez, Foru Aldundia soilik egotea. Halaber, Urdaibai luxuzko urbanizazio bihurtuko den beldur azaldu zen Jose Antonio Pastor PSE-EEren Bizkaiko idazkari nagusia.

Ez dirudi, ordea, Urdaibaiko Guggenheimen aurka agertuko denik orain PSE-EE. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako lehendakari den aldetik, Guggenheim museoko patronatuko lehendakari ere bada Lopez, eta joan den astean egindako batzarrean, Bizkaiko Foru Aldundiarekin Bilboko Guggenheim museoa handitu aurreko lanak egiteko agiria izenpetzea onartu zuen batzorde horrek. Guggenheim museoko gobernu batzordean eginiko bileran, orobat, Blanca Urgell Kultura sailburua izan zela azaldu du Bilbaok, eta hark ere ez zuen eragozpenik jarri Aldundiarekin akordioa egiteko eskaerari oniritzia emateko.

Urdaibaiko Guggenheim museoa egiteko, orotara, berrehun milioi euro behar izango dituztela uste du Bilbaok. Jaurlaritzak, beraz, ehun milioi euro jarri beharko lituzke. Baina, edozelan ere, egitasmotik kanpo geratzeko erabakia hartuko balu, Aldundiak aurrera jarraituko lukeela ziurtatu zuen Bilbaok. Proiektuak merezi du, zalantzarik ez dugu.

BBKren udalekuak, Eara

Museoa finantzatzeaz gainera, BBKren udalekuak Eara eramateak eragindako kostuak ere ordaindu beharko dituzte museoaren sustatzaileek. Bilbaoren arabera, BBK prest azaldu da udalekuak herriz aldatzeko, lanak museoaren eragileen bizkar ordaintzen badira.

Ez Bilbaok ez Bidartek ez dute argitu Ricardo Bastida arkitektoak 1925ean altxatutako eraikina botatzeko asmorik duten, baina iraila inguruan arkitektura lanen nazioarteko lehiaketa deituko dutela adierazi dute. Beraz, pentsatzekoa da hala jokatzeko asmo osoa dutela. Urdaibai babestutako naturgunea dela badakigu, eta legeak zorrotz beteko ditugu, ziurtatu du Bidartek. Arkitekturari dagokionez, ordea, Guggenheim fundazioko irizpidei jarraitu, eta eraikin ikurra egin nahi dute Bilbaok eta Bidartek.

Dena dela, eraikinari zein jarduerari dagokion proposamena egitea aditu talde baten esku lagako dutela jakinarazi dute. Hainbat esparruko profesionalek osatuko dute batzordea, artea, arkitektura eta naturaren alorretako nazioarteko ordezkariak. Gaur egungo artistekin eta ekologiarekin lotura estua izango duen museo ereduaren aldeko apustua egingo dutela aurreratu du Bidartek.

Dolarren auzia dela-eta PSE-EEK ez du baztertu ikertzen jarraitzea

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontu Auzitegiak itxi egin du Guggenheim museoaren auditoria, 2002an ia 17 milioi dolarren erosketak eragindako sei milioi euroren galera dela-eta. EAJ eta EArek ordezkarien botoekin atzo onartutako txostenak ez du argitzen nor den galeraren erantzulea. Kontu Auzitegian EAJk izan du gehiengoa orain arte, baina datorren astean kideak berrituko ditu Eusko Legebiltzarraren oreka berriari jarraiki. PP eta PSE-EEren ordezkariak txostenaren aurka bozkatu dute, eta Jose Antonio Pastor Legebiltzarreko bozeramaile sozialistak aurreratu du dolarren erosketaren auzia argitzeko beste txosten bat eska diezaioketela Kontu Auzitegiari.

Irune Berro.